




IGELDOKO FUNIKULARRA ETA JOLAS PARKEA A MAILA



Egileak eta data: Emilio Huici, Luis Elizalde; 1912.

Deskribapena

2013ko ekainak 11ko erabakiaren bidez, Igeldoko Funikularra eta Jolas Parkea Interes Kultureko Ondasun gisa, zehazki Multzto Monumental modura, deklaratzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zen. Segidan aipatzen diren hiru zati ezberdiñak ditu batezere.

Lehenengoa Funikularra bera da. Emilio Huici injenieroak proiektatu zuen. Severiano Goñi injenieroak zuzendu zituen obrak. Bere helburua Igeldo mendiaren goiko partean kokatutako jolas parkera sarbidea erreztea da eta zen. 1912ko abuztuan M^{re} Cristina erreginak inauguratu zuen. 312 metroko luzera du, eta Von Roll suitzar enpresak hornitu zuen Bigarrena, funikularraren hasieran eta bukaeran kokatutako geltokiak dira. Barruan, bi geltokiak daukate, sarreran, esparru haundi bat aldapan. Bertan, zuloa eta eta bidaiariak ibilgailura sartzeko nasa mailakatuak daude. Modenista moduko beheko geltokia bereiztu daiteke, Luis Elizalde arkitektoak proiektatua, eta 1912an eraikia. Angeluzuzen

Udal Artxiboko espedientea:

D13 - H-01985-13
Ondare historiko-arkitektonikoaren behin-behineko inbentarioa (Eusko Jaurlaritz): D0753,D0754,D0755,D0756,D0757,
D0758,D0759,D0760,D761,D762,D763,D0764,D0765

plantako eta altura ezberdinetako bi gorputz ditu. Lehenengoan Monte Igueldo elkarteko bulegoak daude; bi planta eta arbeleko txapitula erako teilatuazpia ditu. Bigarren gorputza geltoki erabilpenera lotua dago guztiz; planta bat eta mailakatutako teilatu laua ditu. Bi gorputz hoiengatik hizkuntza berekoak dira, eraikuntza publikoen modukoa; elkartutako pilastrak markoztutako sarrera dute, puntu erdiko arkuen azpian kokatutako hiru ateetatik. Bi gorputzak harrizko zokalo baten bidez bateratuak daude beheko zatian, inpostaren lehenengo lerroraino. Goiko zatiak, bigarren inposta baten bidez zatitutako kutxindurazko hornagintza dauka, harria kantoietan eta baoen inguruan, eta egurrezko armazoi erreferentziak txaputuluetan. Fatxadako baoak ardatz simetrikoaren arabera banatzen dira. Hirugarrena eta azkena, jolas parkea da. 1912an inauguratua izan zen. Kasino bat zuen hasieran, geroago gaur dagoen hotelak ordezkaturakoa. "Montaña suiza" izenarekin bataiatutako trenbidea du. Dorrearekin eta skaitingarekin (gaur egun hotelaren pizkina dagoen lekuan kokatua zegoen), jolas parkearen jolas erakargarrienak izan ziren. Beste jolasak (barre gaztelua, karrusela, ibai misteriozua, txalupen lakua, labirintoa...) geroago jarri ziren.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Eusko Jaurjaritzaren Kultura Sailaren EHAA, 2014-06-11koa erabakiaren bidez, Igeldoko Funikularra eta Jolas Parkea interes kultureko ondasun gisa, zehazkiago Multzo Monumental gisa, deklaratzeko hasitako espedientearen ondoriozkoa.